



Ezkerretik hasita, Golden delicious, Granny Smith, Elstar eta Chantecler sagarrak. :: AYOÜES

JAN-SAGARREN HIZTEGIA

Añorga eta Azkoitia Elstar motako sagarra ekoizten dute. 1955ean sortutako sagarra da; Granny Smith, berriz, 1868an, eta Golden 1891n

Makina bat idatzi ohi da sagardoaz eta sagardotarako sagarraz, askoz gutxiago jan-sagarrak. Guzak asko aldatu dira azkenaldian. Orain, frutadendara joan eta etiketadun sagarrak topatuko ditugu, gainera. Zenbaitetan, bi datu eskaintzen ditu etiketak: sagar mota eta ekoizlea.

Aipatu dezadan, hasteko, 'Lurmin' sagar-marka. Sortu berria da irailaren leian jaio zen- eta **Antton Olaizola eta Inaxio Artola** ditu gurasoak, bata Añorgako Unanue-Zar baserrikoa -Gipuzkoako zaharrenetakoa-, bestea Azkoitiko Santakutzekoa. Ez dira hasi berriak, 1989a ezkerotik ari dira elkarrekin lan egiten, baina duela gutxi erabaki zuten beren fruta etiketa eta guzti plazaratzea.

Batez ere **Elstar** motako sagarra dute beren lursailetan. Zergatik? Gustu onekoa delako, al-mazanean asko irauten duelako eta konpetentziakoek -Katalunia, Andaluzia, Nafarroako Erribera- ezin dutelako produzitu. «Sagar mota honi ez zaio eguraldi beroa gustatzen. Alde horretatik, Gipuzkoak badu bere abantaila. Gainera, sagar klase honek ale asko ematen du, gehiegi, eta arbola bakandu beharra dago. Erabil ditzakezu produktu kimikoak, baina azken

fasea eskuz egin behar da. Produktore handiek, berriz, ez dute horrelako esku-lanik ikusi nahi».

Sagar gazi samarra da Elstar, urtsua, kosk egitean klaska egiten du eta azal oso gorria dauka. Gainera, denboraren poderioz ez da 'irintzen'; alegia, ez da lehortzen eta ez du irin-sentsaziorik ematen. Azal gorriarena ez da berriketa. «Orain jendea irin oso gorria -eta gorri ilun samarra- gustatzen zaio», esan digu Antton Olaizolak.

Gaur egun merkaturatzen diren sagar mota gehienak laborategien emaitza dira. Zientzialariek sagar mota ezberdinak gurutzatzen dituzte etengabe, harik eta beren gustuko mota berriak lortzen duten arte. Elstar, adibidez, 1955ean sortu zuten, Golden Delicious eta Ingrid Marie uztartuz.

Antton Olaizolak merkaturatzen duen beste mota bat: **Topaz**. Hau mota are berriagoa da, Txekiako **Jaroslav Tupy** dokto-reak sortua, iaz hildako gizona. Horrelako zientzialariek hiru arlo izaten dituzte kontuan sagar berriak diseinatzeko garaian: fruituaren itxura eta gustua; fruituaren iraunkortasuna; eta arborearen erresistentzia gaitzei. Topaz oso arrakastatsua gertatu da eta berau izango da Europan gehien landatzen den motetako bat.

Golden Delicious aipatu dut



Olaizola, bere bi sagar mota erakutsiz, Topaz eta Elstar. :: F.I.

lehentxeago. Hau ere oso sagarrondo zabaldua da munduan barrena. Hori koloreko sagarretan, bera izango da ezagunena, dudarik gabe. Lehenbizi, Estatu Batuetako Virginia estatuan agertu zen, 1891n, gurutzaketa natural baten ondorioz. Dendetan, beste mota asko baino merkeagoa izan ohi da.

Golden delicious-etik abiatuta sortu zen beste mota bat, he-

men Euskal Herrian harrera ona izan duena: **Chantecler**. Hau, berriz, Frantzia sortu zen, Angersko Ikerketa Agronomikoko Institutu Nazionalean (INRA), Golden Delicious eta Reineta Clochard gurutzatuta. Azala horizta dauka eta Golden delicious-etik heredatu pinportatxo marroi tipiko horiek. Txapal samarra izanik, Reineta ere bada-kar gogora. INRAko laborategie-

tan jaiotako beste mota arrakastatsu bat: Ariane.

Eta Golden delicious-en beste 'kume' bat: **Royal Gala** famatua, gure dendetan oso presente dagoena. Kidd's Orange Red eta Golden Delicious gurutzatuz sortu zuen Zeelanda Berriko J. H. Kidd zientzialariak 1939an.

Eta orain **Granny Smith**-en txanda. Berde-berdea da, eta agian horregatixe, orain ez du estimazio handirik gurean. Mota honen berri, lehenbiziko aldiz, Australian izan zuten 1868an. Diotenez, garai hartan, Maria Ann Smith Sherwood izeneko emakume adindua hasi zen klase honekin txertaketak egiten, eta hortik izena: **Granny Smith** (Amona Smith).

Mota batzuei «klubeko sagarrak» deitzen zaie, haiek landatzeko eta merkaturatzeko oso araudi estua daukan klub bateko kide izan beharra dagoelako. Horietan, gaur egun ezagunena, **Pink Lady** delakoa da. Marketing-operazio erraldoi bat du atzetik, eta arrosa koloreko bihotza ikur. Logotipoa ere ongi diseinatua: Coca Colaren letra mota dakar gogora.

Sagarrak berak kolore gorritzat dauka, baina gorri nahiko argia, arrosatik gertu. Australian sortua da -**John Cripps** du izena aitak- eta, nola ez, honek ere Golden delicious-en geneak ditu bere baitan, izan ere mota hori eta Lady Williams delakoa uztartzean etorri zen mundura.

Sagar 'galaktiko' baten berri emanez bukatu dut artikulua, baina nahi nuke berriz ere aipatu hasieran esan dudana: badira bi baserriar, bata Añorgakoa, bestea Azkoitiko, batu egin direnak eta marka bat sortu dutenak irailaren leian...

fibargutxi@diariovasco.com